

TXEKOSLOBAKIA



Gutxitan ikusi izandu da zinismo handiagorik, fariselsmo nazkanteagorik, politika zitalagorik. Beñ eta berriro indarraren legea agintari, indarra nagusi. Sobietarrek eta bere monagilloek, libertadearen usaia entzun ere ez dutela egin nahi demostratu digute. Argi dago, nazioartekotasuna esaten dutenean inperialismoa irakurri behar dela, «kontrarreboluzioa» diotenean benetako erreboluzio sozialista, kapitaldunen inperialismoa ailtatzen dutenean, sobietar inperialismoari itzala egiten diona adierazi nahi dutela.

«Abertzaletasuna ta rebisionismoa: ara hor, gure etsaiak» zion Mozku'ko irratiak Txekoslovakia'ko gertaerak komentatuaz. Ezin zitekean hobeto mintza. Inperialista batentzat gauzarik okerrera ta bildurgarriena horixe baida: menpekoek abertzale biurtzea. Menderatzaillaren abertzalekeri itsuaren aurka, menderatutakoen abertzaletasun jatorra esnatzea. Baiñan ez hori bakarrik. Rebisionismoa ere bildurgarria da inperialistentzat. Menderatzaillera danean egia zer den erabakitzen duena nola ez da ba izango arriskugarria honentzat menderatuek interpretazio hori zuzena ez izatea gerta ditekela pentsatzen astea?

Gertaera hauek nazioarteko politikarentzat atzerakada izugarria dira, gerla otzaren berpiztea baidira.

Sobietarrak munduko kontserbadoreen aliadu onenean eta seguruenean blurtu dira. Orain, gauzak ez dirala aldatu behar diotenak arrazoi dutela esango dute ta. Hauek, gauzak aldatu nahi dituzten guztiak komunistak dirala esango dute eta sobietarrak ba dakizute nolakoak diran, esango dute irriparrarekin. Jakiña, zapalduak izan diran txekatiarrek nahi zutena ez zela kapitalismora bueltatzea, sozialismo jator bat, sozialismo libre bat jasotzea baizik esatea ahaztu egingo zale.

Orañ edozeñi gobernuak nahikoa izango du oposizioari «komunista» txartela erastea hau erabat desprestijiatutzeko ta hauen kontra amerikanoen laguntza gutzia izateko, Foster Dulles'en garaietan bezala.

Izan ere gerla otzak horixe esan nahi du batez ere: inobilismoa, mundua dagoen bezala uztea. Beraz, oraingoz gauzak dauden bezala gelditzea komeni zaienak, kontserbadoreak, dira abantaila andienak jasoko dituztenak. Gaiñontzekoak, egoera hontan zapalduta daudenak, izurra ditezela! Lehenago esan dugun bezala sobietarrak eta bere monagilloak biurtu dira —aurretikan ere ba ziran egia esateko— reaktionario ta kontserbadoreen laguntzaillerik onenak.

R. A.